

# MIKEL GURIA

Euskal mutil trebe bat dirudi Mikelek. Euskal Herriaren alde berrokatu den euskal gudaria. Horregatik abesten diote haundi eta txikiak ezarria urratu arte:

"Mikel, Mikel,  
Mikel, guria  
Gorde, gorde  
Euskal Herria"

Iza bere Euskal Herriaren kondaira zati bat dago loturik Aralar eta Mikel. Herrian ahoz aho dabilen kondaira hortan bada gertatu berriak eta ipunik. Baina dena dago euskaldunoi loturik. Ez dago ukatzerik, Aralar izan da antzinako euskaldun askoren habesleku. Aralar da euskal aztarnaz eta zantuz estalitako lurra. Beste inon ez bezala aurki ditezke hilarriak, jentilen baratzak, trikuharri edo dolmenak.

Aberatsa da alde hontatik Aralar. Hamairu trikuharri eta menir bat aurkitu zituzten Juan Iturralde eta Suit-ek, 1894 eta 1895ean. Gero aurkitu ziren beste lautun antzinako giza-aztarnekin topo egin zuten Telesforo Arantzi eta Frantzisko Ansoleagak. Arantzi eta Egurenen laguntzaz beste hogeitrikuharri aurkitu zituzten Joxe Migel Barandiaranek 1916-17 garrenko urtean.

Antzinako herri guztiak bezalaxe hazituzten euskaldunak ere erlijiozko batzarreak. Nekazaritzarekin batera bizia eta ugaltzari buruzko erlijio berria sartu zen. Beren ohituretan, iturria, zuhaitzak eta abar zitzaizkien gogoko. Bizia sorrarazten zuen ikutuko indarra zuten hartzen jainkotat. Bizi berria sortzeko esintzak erlijiozko lanak ziren haientzat.

Aralar zuten Euskal Herriaren etsaiergandik ihes egiteko gaztelu eta gordeleku. Badu zerikusia moroen aurkako burruketan.

Eta Aralar kristautasunari lotua azaltzen zaigu. Erlijio berriaren sorleku bezala. Gertakizun berri hau adierazteko sortzen dute Olentzero ipuina ere. Aralarako mendietatik behera Kristoreta herri daarkian jentila dugu Olentzero. Baina aldi berean urtearen bukaeran antzinako euskaldunak espazten zituzten suzko laiei lotua geratu da.

Orobat San Migel ere. Badu zerikusi biziaz eta gauzen ugaltzaz San Migelek. Soro, lur, landa, abere eta ikultetako ugarietasuna eskatzen diote San Migeli Udaberrian herri-herri dabilenean. Aralarako elizara igo ohi ziren emakumeak seme-alabak sortzeko ahalmena eskatzen. Ez da gaur goizeko ohitura hau. Hecixe bera egin zuen Aragoiko Pedro erregek, hamabigarren gizaaldian: antzu ziren gizonen alde oitotz egitera joan zen, bizi berriak sorrarazteko ahalmena izan zezaten.

Aralar ez da euskaldunontzat munduko beste edozein mendi. Euskaldunon mendi da. Handik gauda zintzilikatutik. Eta han dago gure aingerua. Ikastolen eta herri-askotako zaindaria.

Euskal Herriaren izaeran, nortasunean, askatsunean, borroka eta arazo guztietan pentsatzeko eguna dugu San Migel jaia. Batez ere ikastola inguruan dabilen jendeak zaindaritzat hartzen dutenez gero Xabierko Franziskorekin batera.

Berritu haundia hartu du azkenaldi hontan Aralarako San Migelek. Euskaldunon gordeleku, gaztelu eta bitoki gerta daki-gula. Euskaldunon Lege Zaharrak eskuratzeko Sirai-mendi.

"Jabetasuna galdu dulako  
dago erri au damutan.  
Lurra galdurik, erritasuna  
egizu galdu ez dezan".

# BIHOTZA ERDIBITURIK

Lerro hauek idazten ditugun me-mentoan (Irailaren 13an) ezer gutxi dakigu oraindik Txileko egoeraz. Allende hila dela bai; eta militarrek oihukatzen duten «ordenu» famatua ez dela batere nagusitua ere bai; hilak ehunka gertatu bide dira Santiagon, kañioez izan da eraso hiri-inguruetako herri xehea, Parlamentoa desegina, «marxisten» egoiza gori-gori ari, eta... Moltsa, gora! Kobrea salbu baita! Mundu guztian barrena eskuindarrak pozik, eta ezkertarrak ilun: horra za-riketa. Gauzak horrela, eta berriak urri izanagatik ere, Santiagoko kolpea gertatuta berehalatik, nabarmen dago gertatuen muina.

Burgesiak erhan du Allende: hau denek aitortzen dute. Aipatzen diren «desordenua» eta «inflazioa» ez ditu Union Popular delakoak sortu, burgesiaren komandoek eta kapital-ihesak baizik. Desordenua sortu, eta desordenu horixe etsa-erri egotzi: ez da batere berria jokabide zikin hori.

Eta atzean, dena funtsatuz eta sustatuz, amerikar imperialismoa eta yankeen monopolioak egon dira. Eta haseratik beretik egon ga-nera. C.I.A.-ko Buruzagi izandako Mc Cone-k berak aitortu duenez, 1.000.000.000 (mila miloi, bai) dol- lar, eskaini zizkion C.I.A.-ri I.T.T. konpainiak (428.000 langile mun- duan zehar sakabanaturik) Allende hankaz gora botatzeko; eta gertatu ziren harreman ikutuzko haietan, bes- teak beste, Kissinger-ek berak har- tuen parte, «Patria y Libertad»- en komandoak, bestalde, lotura hestuan, eta nabarmenki, ibili dira azkeneko asteetan USArean enbaja- dako buruzagiek. Bide beretik ere ari, 1972an gerotzik Jack Anderson kasetalariak azaldu zuenez, Pen- tagoaren helburua garbi zegoen: nola edo hala, Allenderen saia- kun- tza Ameriketara barrena «kutsa» ze- din heldurrez, Union Popular-aren gobernuaren errekaraztea. Hau lortze- ko, eta militarren jokatu-beharrak «garbitzeko», benetako ekonomi- deskalabroa lortu behar aurrenik; eta sabotajeak, teknikaz eta estra-

tejiak, CIAk berak moldatuak ditu. Santiagoko Kolpea, beraz, Was- hingtonen prestatu da; eta burge- sia internazionalak berak eraiki eta ordaindu du, Txileko kapitalisten eta fazisten laguntzaz.

Joko ezin zailagoa (ezinezkoa ere, ikusi denez) Allende gizara- joak bere gain hartu zuena; eta kolpe latza hartu hiribururik ge- hienetan. Che-ren heriotzaz geroz- tik, ez da inoiz ezagutu mundu guz- tik sozialista mota guztien arteko batasun osoagorik, gaur txiletar apartaren fintasuna eta prestuta- suna goratzeko izan dena baino. Anitz eta anitz zapalduren espe- rentza izan da Allende hiru urtez; eta sozialismoa eta pluralismoa ez- kondu nahi dituztenena ere bai.

Baina esperantza horiek zapat- zailean bala boritzek erazi di- tuzte brauki eta errotik. Umezurtz jotzen dute gaur ezkertak guztiak beren burua; ezen Allende denon aintzindari bikaina izan baita. Zu- zenbide egarri diren guztiak min- to dira gaur hortz karraskan eta bihotzak hestuturik eta erdibiturik. «Berriz galdu diagu!» aitortzen da; eta ezintasunezko malkoak ez di- ra jalgitzen.

Bihotza hestuturik mintzo gara, beraz; baina, ahalean, atxik deza- gun burua argi. Allenderen hilketa lotsagarria argi bide gaitza izan baitakiguke denoi. Hori bederen!

Atzo Santiagon amets eder han- di bat hil da, eta aitortu egin be- har da. Zeren-eta Pierre Bourgea- deko gaurko «Le Monde»n guziz egokiro idatzi duenez, «son éché et sa mort montrant (vérité que tant de nous craignent de regard- er en face) que la révolution par la loi est un leurre». Hauxe da Santiagoren erakapen ezin lar- riagoa: legetasunaren barruan eta legetasunaren hildotik zapalduak ez daukatela ezer onik itxarotarik. Zapalkuntzaren akabera, zuzentasuna- ren finkaera, burgesiaren gaineko garaitzapena, monopolioen desegin- tza, eta abar, legearen barruan ez baina legetik at daudela; eta ez dagoela beste biderik. Ala legetik at, ala batere ez.

Monopolioen lotsagarrikerian au- rrean, ekonomi-munduaren jabe gu- pidagabeen aurka, parlamentozko sozial-demokrazia liberal legekoa hutsa da, eta berriro hil da Allen- derekin batera (dagoeneko hilkik eta ehortzirik ez bazegoen bede- ren), eta nekez bizituko da. Burge- s- legetasunetik irten nahi ez den sozialista mugimendua, burgesiaren eta monopolioen morroin bilaka- tzen da. Ala, Allende bezala, «or- denu» eta «bakea»-ren ohoretan, harren bazka. Hauxe da egoia latza.

Santiago agertu denez, sozieda- dearen barne-lege nagusia ez da arrazoina, ez da zuzenbidea, ez da gutxi-gora-beherako gizarte-tratua ere, ez da inolaz ere gehienien eskubideen eta borondateen erres- petua. Soziedadearen barne-lege nagusia, behin eta berriz, zapalke- ta da; eta zapalketa honen iskilu nagusia, ia bakarra, era berean, bortxa da, kontrazuzena, ahulen zapalketa, indartsuen geriza. Soziedadean indarkeria da nagusi; eta hau barne-muinetaraino sinesten ez d'ena, ezinbestean, zeharo oker dagoelako, erkaztatua da, eta oso- ki galdua.

Naturalza guztian hala daizan:

arrain handiak txikia jaten. Baina liberalismoaren mitok (gaur jaun- ta-daba daudenek berriaz heda- tuak) oraindik oso zabaldurik dau- de gure artean eta ez dira orain- goz suntsitzeko bezperan; eta ho- rretatik heldu zaizkigu gerokoak. Burgesiak bere abantailak eta jaun- txokeriak indarka eta odolatan ere geratzeko zituela ez zuen, itxura deniz, Allende «marxistak» (?) si- netsi; eta honetxek galdu du. Allenderen prestutasuna erreali- smorik eza gertatu da arren funts- ean. Tankeen bidez eta odolozko itsaso batez defenditzen baititu burgesiak bere interesak hala be- har izatekotan. Santiagoko trajeriak hau gogorazi digu garrazki; eta arunt beharko genuke ikaskai go- gor hitsa gogoan hartu.

Lecanuet frantses eskuindararen esanak, horrela, irigarri gertatzen dira gaur: «Le communisme — zion — a un grave défaut: qu'une fois qu'on y est, on n'en sort plus... Alegia, komunismoa nagusituz ge- ro, ez dagoela komunismotik irte- terik. Hots, burgesiaren eta mono- polioen diktaduratik irteera ere ez da batere errazago; eta Pragako zikinkeriarri ez dio batere zorrik Santiagokoak. Geroak esanen Allen- deren heriotzaren ondorioak Dub- cek-en frakasua baino ere lar- riago izango ez ote diren.

Burgesiak gero eta maizago fa- zismora jo ala, erdibideak suntsi- tzen ari. Irribarreen garaia amaiz- teaz deia dirudi. Norkperak hauta here bidea.

Gurea behintzat ez da dudakoa: gero zer gerta ere, ITT-koekin, fa- zistekin, burgesia ahalguztidunare- kin, herriaren zapatzaileekin, ira- bazpide munstroen buruzagiekin, Allende maitatuaren hiltzaileekin, inolaz eta inoiz ere ez.

Hauxe da Allenderen galera gai- tzak gaur ezker guztiari helarazi dion mezu etsia.

LARRESORO



# BONBA H

Ez dakit euskaldunok indartsu garen ala ez, Baina inork ez digu kenduko indartsu garen uesterik. Alaz gutiz ere gutxi gara eta ez digu inor bildurtzen. Alde ederre- ko errespetoa sartuko genuke mun- du zabalean geixeeago bagina!

Munduak ez daki, baina badugu guk ere gure «bonba H». Eta ez nolanaikoa. Oso sorgina Au ere berezia bear genuen. Besteak ez bezalako. Euskal Herriko lurretan bakarrik leertu ditezke. Lur ontan ere, euskaldunak bakarrik il ditza- ke. Arrigarria!

Txikia da, laiairen-tankerakoa egur- tuzan, baina au baino askoz ere txikiagoa neurritz. Euskal inenez ba- taitatu bear eta «laia» deitzen diote batzuek.

Dagoeneko gori-gori dago, su artzeko zorian. Leertzen denean ez dugu euskaldunok ezteandirik ent- zungo, ez dugu negarrik egingo; denok ilko bait gaitu.

Onoz gero igerridada, irekurle, zein «bonba H» az ari naizen. Eus- keraz idazterakoan sartzen ditugun «h» oietaz ari nauzu. Baina ez mu- çaz bestaldekoak aozkatzen, eta idazten dituen «h» oietaz. Aiena ez bait da Salamancako Unibertsida- detik ekarria. An «h» kentzeak sor-

tuko luke gudua. Alderdi ontoakoa erabilitzen dugun ortaz ari nauzu. Gauzez etsaiek euskal gaisoan ereindako ari txar ortaz.

Baina zenbateraino burua galdu dugun! Sinesteak ere lanak ditu. Il edo biziko borrokan gabiltza. Denbora galtzen. Elkar iltzen.

Denok aitortzen dugu idaztera- koan euskera batuaen bearra. Bai- na nola batuz? galditzen dugu. De- nin aitortzen dugu setakerian ga- biltzala, baina nor dago amor ema- teko prest?

Talde batek bestea menderatu nai du. «Gu nagusituko gara, diote batzuek, geiago bait gara». «Gaz- teona da etorkizuna» diote besteek. «Ez alazanko, dio norbaitek, guk dugu dirua».

Jarrera ontan dagoena ez da abertzalea. Besteak egindako eus- kerazko lanari izki batengatik mu- zin egiten diona ez da abertzalea. Besteak egin dezakeen lanari oz- topoak jertzen ari dena ez da aber- tzalea.

Jarrera orrek, azkenean, ontara garamatza: «Il bedi besteen eus- kera eta gureak il behar badu, bizi bedi erdara».

Euskera maite duenak, utzi bear duen guztia uzteko eta artu bear

duen guztia artzeko prest egon bear du.

Zenbat daude «h» uzteko prest eta zenbat «h» sartzeko gertu? Oiek bakarrik maite dute euskara.

Zuzena izan zen Salomonen era- bakia. «Bi amek seme bana izan zuten. Bati il egin zitzaion eta bi- zirik zeukanaren ondoan sartu zuen, bizirik zegoena bereganatzu».

Berea ez zuenak erdibi eginik erdibanatu nahi zuen bi amen ar- tean.

Berea zuenak naiago izan zuen semea bizirik besteren eskutan.

Gu ere prest ote gaudu euskara besteren eskutan bederen bizirik ikusteko? Ala naiago ote dugu ilik, besteren eskutan baino?

Ez dakit euskaldunon «bonba H-k odolez naastuok ilko gaituen ala euskal odol garbikoak bakarrik gar- bituko dituen.

Beina bide ontatik guk geuk gal- duko dugu euskara, guk geuk ikas- tola, gu geuk Euskal gara.

Beste bide apalago bat artu bea- rrean gaudu.

«H»-kin edo «H»-rik gabe batu eta salbatu ditezke euskara. Setak gal- duko du.

A. de Fernandez

**ARGIA**

**Zuzenadaria:**  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-ko Kaputuinoak argitaratzen ditu (Kale Nagusia, 50 1.º. Burdeto, Pamplona).  
Donostia: Okenoko, 22  
Tel: 42 66 66

**ARPIDE SARIA:**

Barruan	300 pezeta
Korreo batasuneko errietan	350 pezeta
Atzerietako beste errietan	370 pezeta
Aidez	400 pezeta

Salmetan (aie bakoitza) 7 pezeta

**Irakokita:**  
«Gráficas Navasol»  
A. Adoain - IRUÑEA  
D. L.: NA 80-1963